

Hamarkada galdua

Espainiako Estatuari Europar Batasunak ezarritako ekonomi neurri zorrotzak urrats desberdinetan gauzatzen joan dira. Atzeraldiaren hasieran, “debaluazio konpetitiboaren” aldeko neurriak hartu ziren batez ere. Langabeen igoerarekin batera langileen soldaten jaitsiera bizkorra bilatu zen. Horretarako lan merkatuaren erreforma izan zen giltza. Euroaren barnean egonik txanponaren devaluaziorik ezean, lan kostuen beherakada omen zen lehiakortasuna hobetzeko bide bakarra. Lanaren galerak eta soldaten mozketek zerga sarrerren zein gizarte kotizazioen beherakada nabarmena ekarri zuten. Jaitsiera horiek berehalako eragina izan zuten diru bilketa publikoaren beherakadan.

Bigarren urratsa gastu publikoaren murrizketa izan zen, batez ere gastu sozialarena. Madrilgo zein Gasteiz eta Iruñeko gobernuen finantza baliabideak gutxitu izanaren logika erabilia hezkuntzan, osasunean eta bestelako zerbitzu zein prestakuntza sozialetan murrizketa indartsuak eman dira. Orain badakigu adibidez, pentsio fondoan zuloa –Estatuan 16.500 milioi euro– soldaten murrizketak eragindako kotizazio sozialen igoera xumeak izan direla.

Desberdintasun sozial eta ekonomikoaren igoerak itxuratzen duen aldia dator orain. Oxfam erakundeak (Gobernuz Kanpoko Erakundearen federazioa) duela bi aste aurkeztutako txostenak argi erakusten du: Zipreren ondoren Espainiako Estatuan eman da 2007az geroztik EBko herrialdeen arteko errenta banaketaren arloko desberdintasunen igoerarik handiena. Ondorioz, Espainiako herritarren %30 pobrezia edota bazterketa sozialaren arriskuan dago. Aldiz, Ibx35 delakoan kotizatzen duten enpresek aurreko urteko lehen bederatz hilabeteetan beren irabaziak %22 igotzea lortu zuten. Langabeziaren



Mikel Zurbano
EHUKO IRAKASLEA

Desberdintasun sozial eta ekonomikoaren igoerak itxuratzen duen aldia dator orain. Oxfam erakundeak duela bi aste aurkeztutako txostenak argi erakusten du: Zipreren ondoren Espainiako Estatuan eman da 2007az geroztik EBko herrialdeen arteko errenta banaketaren arloko desberdintasunen igoerarik handiena. Ondorioz, Espainiako herritarren %30 pobrezia edota bazterketa sozialaren arriskuan dago

tamaina (%21,2) eta sortzen ari den kalitate eskaseko lan prekarioa kontuan hartuta kohesio soziala are gehiago pitza daiteke etorkizunean.

Azken urteko BPGren %3ko igoera eta Gizarte Segurantzaren milioi erdiko

afiliazio gehigarria datu makroekonomiko positiboak dira aspaldiko partez. Baina Espainiako ekonomiak oraintxe dituen arazo larriak ikusita, zazpi urteko atzeraldiak ez duela etenik izango erakusten du. Hasteko, zor publikoa oso indartsu igo da azken urtetan BPGren %100 izateraino. Are gehiago, bankuek jasotako diru publikoa barnean sartuz gero, zor publikoa BPGren %132 da. Iazko defizit publikoa %4,5 izan zen, Europako Batzordeak ezarritako mugatik gora hiru hamarretan. Eta kanpo zorra ere erraldoia du Espainiako ekonomiak. Orotara, Espainiako Estatu munduko zortzigarren herrialdea da zor osoari erreparatuta.

Azken zortzi urtetan Bruselak ezarritako defizitaren helburua ez du bete ahal izan Espainiako Gobernuak eta zaila du datorren gobernuak ere –edo zein kolore duela– 2016rako ezarritako BPGren %2,8ko muga betetzea. Helburu hori betetzekoan 9.000 milioi euroko murrizketa gehigarria beharko da (urtebetean azpiegiturarako erabili ohi den kopurua). Murrizketak sakontzera jo beharko du gobernu berriak, beraz.

Austeritatealdi luzearen ondoren gastu soziala igotzeko grina handitu da, azken hauteskunde kanpainen ikusi dugun moduan. Baina zaila du gobernu berriak horiei erantzun egokia ematen, Bruselarekin tentsioa igotzeko aukerak handiak diren neurrian. Batzordearen atea jo beharko du gobernu berriak malgutatsun eske. Defizit publikoaren helburua bete ahal izateko epea luzatzea eskatzea da normalena. Baina europar batzordekide batzuek (Pierre Moscovici sozialdemokratak barne) neurri zorrotzagoak nahi dituzte, gobernu berriak doikuntza neurri gehigarriak aurkeztea nahi dute eta ez dute defizita betetzeko epea luzatu nahi. Zazpi urte galduak ez dira aski izan nonbait. ■